

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	AZAZKAL ARTIFIZIALAK	Iraupena	80
Kodea	MF0358_2		
Lanbide-arloa	IRUDI PERTSONALA		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Esku eta oinetako zainketa estetikoak	Maila	2
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko behar den gainerako prestakuntza	Segurtasuna eta osasuna esku eta oinetako zainketa estetikoetan.	Iraupena	70
	Azazkalak zaintzeko eta edertzeko teknika estetikoak		70
	Esku eta oinetako tratamendu estetikoak		60
	Esku eta oinetako zainketa estetikoetako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator UC0358_2 gaitasun-atalarekin: AZAZKAL ARTIFIZIALAK EGITEA ETA APLIKATZEA.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Lan-eremuak eta azazkal artifizialak aplikatzeko eta egiteko erabiltzen diren tresnek eta produktuek izan behar dituzten ezaugarriak eta bete behar dituzten kondizioak aztertzea.
- EI1.1 Azazkal artifizialak aplikatzeko lan-eremuek bete behar dituzten aireztapeneko eta argiztapeneko ingurune-kondizioak deskribatzea.
- EI1.2 Azazkal artifizialen teknikan erabiltzen diren produktu kosmetikoak maneiatzeko, aplikatzeko eta kontserbatzeko kontuan hartu beharrekoak azaltzea.
- EI1.3 Azazkal artifizialak aplikatzeko aparatuak eta tresnak erabiltzean bete beharreko segurtasun-, higiene-, desinfekzio- eta esterilizazio-arauak azaltzea.
- EI1.4 Azazkal artifizialen teknikan erabiltzen diren aparatuak deskribatzea, eta behar bezala erabiltzeko eta kontserbatzeko jarraibideak aipatzea.
- A2: Bezeroaren esku eta azazkalen ezaugarriak behatzea, azazkal artifizialen teknika eta azazkalak makillatzeko teknika espezifikoak zehazteko.
- EI2.1 Azazkal artifizialak aplikatzea kontraindika dezaketen azazkal-alterazioak deskribatzea.
- EI2.2 Bezeroaren esku eta azazkalen ezaugarri morfologikoak azazkal artifizial motarekin eta azazkal-makillaje egokiarekin erlazionatzea.
- EI2.3 Bezeroaren eskaerak detektatzeko eta fitxa teknikoak egiteko balio duten galdera tipoak egitea.
- EI2.4 Bezeroa kokatzeko eta azazkal artifizialak aplikatzeko material nahiz produktuak prestatzeko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:
- Bezeroa jarrera ergonomiko egokian kokatzea, eta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko norbera eta bezeroa babesteko behar diren neurriak hartzea.
 - Egiaztatzea bezeroak ez duela azazkal artifizialen teknika hautatua aplikatzea aholkatzen ez duten kontraindikaziorik.
 - Hautatutako teknikaren arabera beharrezko diren produktu eta tresnak hautatzea eta prestatzea.
 - Aparatu, osagarri eta tresnak aplikatzeko segurtasun-kondizioak betetzen dituztela egiaztatzea.
 - Makillajea kentzeko teknikak aplikatzea.
- EI2.5 Azazkal artifizialen metodoen abantailak eta desabantailak azaltzea.
- A3: Azazkal artifizialen teknikak trebeziak eta higiene- eta segurtasun-arauak betez aplikatzea.
- EI3.1 Punta-molde eta *tip*-orri mota egokiak zehazteko hautatze-irizpideak azaltzea.
- EI3.2 Azazkal artifizialak aplikatzeko kasu praktiko batean:
- Punta-moldeak edo *tip*-orriak hautatzea eta prestatzea, bezeroaren esku eta azazkalen ezaugarrien arabera.
 - Azazkala prestatzea, teknikari dagozkion kosmetiko espezifikoak aplikatuz.
 - *Tipa* aplikatzeko teknikak baliatzea eta hautatutako teknika definitzea, fabrikatzailearen edo laborategiaren argibideei jarraituz.
 - Erabiltzen diren baliabide teknikoak, produktuak eta tresnak trebeziak erabiltzea.
- EI3.3 Azazkal zizelkatuak egiteko kasu praktiko batean:

- Bezeroa jarrera egoki eta osasungarrian kokatzea eta haren jantziak babestea.
- Azazkalaren gorputza egokitzea, horretarako kosmetikoak aplikatuz eta lima eta beste tresnekin modu egokian jokatuz.
- Azazkal artifiziala moldekatzeko plataforma gisa erabiliko den molde- edo eredu-mota hautatzea.
- Produktuak modu homogeneoan aplikatzea, eta bezeroaren azazkalen ezaugarrien arabera forma pertsonalizatuz moldekatzea protesia.
- Erabiltzen diren baliabide teknikoak, produktuak, aparatuak eta osagarriak trebeziaz erabiltzea.

EI3.4 Azazkal artifizialak aldatu behar direnean azazkal naturalaren gainean aplikatutako produktuak disolbatzeko prozesua deskribatzea.

A4: Azazkal artifizialetan kosmetiko apaingarriak aplikatzea teknika egokiarekin, eta nahi den emaitza lortzea.

EI4.1 Azazkal artifizialak makillatzeko teknikak deskribatzea.

EI4.2 Azazkal artifizialen apaintaketak bilduko dituen erakusgai bat egitea.

EI4.3 Azazkal artifizialetarako kolore iraunkorreko teknika eta horretarako produktu kosmetiko eta tresnak aplikatzea.

EI4.4 Kasu praktiko batean:

- Azazkal artifizialak makillatzeko teknikak aplikatzea.
- Azazkaletarako fantasiatzko makillajerako beharrezko produktu kosmetikoak eta osagarriak aplikatzea.

A5: Azazkal artifizialak aplikatzeko prozesuaren kalitatea baloratzeko prozedurak aplikatzea.

EI5.1 Azazkal artifizialen aplikazio-tekniken aplikazioan ebaluatu beharreko alderdiak identifikatzea, zerbitzuen kalitatea eta bezeroaren gogobetetze-maila zehazteko.

EI5.2 Zerbitzua emateko prozesua eskematizatzea, eta detektatutako desbideratzeak haiek gertatutako faseekin lotzea.

EI5.3 Esku eta oinak edertzeko prozesuetan arriskuak prebenitzeko eta hondakinak ezabatzeko zer arau aplikatu behar diren deskribatzea.

EI5.4 Azazkal artifizialak aplikatzeko kasu praktiko batean:

- Hobetu daitezkeen alderdiak zehaztea.
- Zerbitzuaren kalitatea bermatzeko neurri zuzentzaileak hartzea.

Edukiak

1. Manikura- eta pedikura-zerbitzuaren antolaketa, azazkal artifizialak aplikatu aurretik.

- Jantziera eta profesionalak babesteko neurriak.
- Bezeroa babesteko neurriak.
- Bezeroa kokatzea.
- Jarrera-higienea. Altzari ergonomikoak.
- Lan-eremua prestatzea.

2. Eskuen eta azazkalen azterketa estetikoa egitea, azazkal artifizialak aplikatzeko:

- Eskuen morfologia. Esku-motak: tamaina, forma eta kolorea.
- Azazkalen egitura eta morfologia:
 - Azazkalaren zatiak.
 - Azazkal-motak eta haiek azazkal artifizialekin duten erlazioa.
 - Azazkalaren ingurua eta ertz askea: itxura, lodiera, gogortasuna, kurbadura eta kolorea.
 - Azazkalaren hazkuntza.
- Azazkal artifizialak dituzten azazkalen alterazio morfologikoei egiten zaizkien zuzenketak. Ohiko ekipamendu eta erremintak.

3. Azazkal artifizialak

- Definizioa eta kontzeptua.
- Teknikaren bilakaera.
- Azazkal artifizialen sailkapena: portzelanazkoak, beira-zuntzezkoak, gelezkoak.
 - Deskribapena eta ezaugarriak. Azazkal artifizialen helburua.
 - Erabiltzeko kontuan hartu beharreko alderdi bereziak. Aplikazio egokia egiteko arauak.
 - Erabilerak eta kontraindikazioak.
- Azazkaletako eta azazkalen inguruko alterazioek azazkal artifizialen prozesuetan duten eragina.
 - Egite-prozesua gauzatzean.
 - Azken akaberari, iraupenari eta mantentzeari dagokienez.
- Teknika horiek aplikatzeko kontraindikazio erlatiboak edo absolutuak eragin litzaketen alterazio estetikoak eta/edo patologikoak. Azazkalaren ingurukoak. Azazkalaren gorputzeak.
- Gelezko eta beira-zuntzezko azazkala zizelkatuak egiteko teknikarako tresna, aparatu, kosmetiko eta produktu espezifikoak:

- Tresnak: deskribapena eta erabilera-teknika. Pikor eta lodiera desberdinetako limak. Laranjondo-ziria. Lodiera desberdinetako pintzelak. Kotoia, kotoi-txotxak. Azazkal-puntak edo *tjpa* mozteko aliketak. Azazkal-puntak edo *tjpa*. Beira-zuntzeko orriak. Moldeak edo euskarriak.
- Aparatuak: deskribapena eta maneiua. Erradiazio ultramoreko lanpara. Erabili eta botatzekoak ez diren tresnetarako esterilizagailua.
- Produktu eta kosmetiko espezifikoak: deskribapena eta ezaugarriak. Berniz-kentzekoak. Kutikula biguntzeko kosmetikoak. Azazkal naturala prestatzeko kosmetikoak. Itsasgarriak. Disolbatzaileak. Katalizatzaileak. Gelak. Beira-zuntza.
- Aplikazio-teknikak.
- Erabilerak, kontuan hartu beharrekoak eta kontraindikazioak.
- Portzelanazko azazkala zizelkatuak egiteko teknkarako tresna, aparatu, kosmetiko eta produktu espezifikoak.
- Tresnak. Deskribapena eta erabilera-teknika. Kotoia, kotoi-txotxak. Pikor eta gogortasun desberdinetako lima espezifikoak. Laranjondo-ziria. Lodiera desberdinetako pintzelak. Moldeak edo euskarriak.
- Produktu eta kosmetiko espezifikoak: deskribapena eta ezaugarriak. Berniz-kentzeko azetonadunak. Kutikula biguntzeko kosmetikoak. Inprimazio-oinarriak. Hauts akrilikoa edo portzelanazkoa. Likido katalizatzailea. Portzelana-hautsaren diluitzailea.
- Aplikazio-teknikak.
- Erabilerak, kontuan hartu beharrekoak eta kontraindikazioak.
- Aparatuak: deskribapena eta maneiua. Tamaina eta forma desberdinetako fresak dituen manikura-tornua. Erabili eta botatzekoak ez diren tresnetarako esterilizagailua.
- Azazkal artifizialen tekniketean erabiltzen diren tresna, aparatu eta produktuen kontserbazioa eta mantentze-lanak. Garbiketa eta desinfekzioa. Hautatze-irizpideak. Kontserbazio-jarraibideak.

4 Azazkal artifizialak aplikatzeko teknikak

- Gelezko edo beira-zuntzeko azazkal artifizialak:
 - Azazkal naturala eta kutikula prestatzea eta haiei makillajea kentzea.
 - Azazkal-punta edo *tjpa* egokitzea.
 - Azazkal-punta edo *tjpa* aplikatzea.
 - Azazkal naturala egokitzea.
 - Hala badagokio, erradiazio ultramoreko lanpararekin lehortzea.
 - Makillaje naturala edo fantasiazkoa.
- Azazkalak hauts akrilikoarekin edo portzelanarekin zizelkatzea:
 - Azazkal naturala eta kutikula prestatzea eta haiei makillajea kentzea.
 - Moldeak edo ereduak jartzea.
 - Azazkal zizelkatuak egiteko prozesua.
 - Azazkal naturala egokitzea.
 - Azazkal zizelkatuari akabera emateko eta hura leuntzeko prozesua.
 - Makillaje naturala edo fantasiazkoa aplikatzeko teknika.
- Azazkal artifizialak dituzten azazkalen alterazio morfologikoei egiten zaizkien zuzenketak.

5 Azazkal artifizialen aplikazioaren ebaluazioa eta kalitate-kontrola

- Bezeroaren gogobetetze-mailaren ebaluazioa azazkal artifizialen aplikazioan.
- Azazkal artifizialen prozesuaren kalitatea ebaluatzeko formularioak.
- Bezeroarekiko komunikazioaren funtsezko puntuak.
- Indarrean dagoen arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko araudia.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Esku eta oinetako zainketa estetikoak.